

Emakunde



ARRATE EGAÑA

Emakunde Euskal Autonomi Elkarteko emakumeok —eta gizarteak orokorrean— oraindik behar dugun erakunde publiko bat da. Euskal Legebiltzarrak 1990-eko urrian Emakume Euskal Erakundea / Emakunde onartu zuen. Erakunde hau helburu argi batekin jaio zen arlo guztietan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna sendotzeko: politikan, sozietatean, ekonomian, kulturean, etb.



ARRATE EGAÑA 94

Emakundek, sortu bezain laster, Eusko Jaurlaritzari egitasmo bat aurkeztu zion hurrengo lau urteetarako (1991-1994); helburuen artean, sexuaren araberako bereizkeriak bastertzea, euskal administrazio eta euskal gizarte osoko desberdintasun egoera gainditzea... eta "E.A.E.-ko Emakumeentzako Ekintza Positiborako Plana 1991-1994" izendatu zuten.

Emakumeen gaiari buruz dauden arazoez jendea jabetzeko ekintza asko burutu ditu Emakundek: ikastaro, mintegi edo ihardunaldien bidez prestakuntza, esparru desberdinetako (hezkuntza, lana, familia, arazo sozialak...) azterlanak eta ikerketak, unibertsitatearekin edo beste erakundeekin lan eginez eta diru laguntza eskainiz, aholkularitza juridikoa emanez arau sexisten edo sexua dela eta gertatzen diren diskriminazioen aurkako salaketak bideratzen, edo emakumezko elkarteak bultzatuz. Bestalde, nazioarteko harremanak mantentzen ditu, integrazio sozialarekin zerikusirik duten foro eta biltzarretan parte hartuz.

Hauetaz gain dokumentazio zentru oso interesgarri bat dute; bertan liburu, agiri, bideo, argitalpen, e.a. emakumeekin zerikusi duen edozer aurki daiteke. Zerbitzu hau dohainik da eta baita bere aldizkaria ere: "Emakunde". Aldizkari hau lau hilean behin argitaratzen dute ale dotoretan, euskaraz nahiz erderaz gai desberdinetaz osaturiko artikuluekin.

Informatzeaz gain "Emakunde" aldizkaria sentsibilizazioa bultzatzen saiatzen da. Helburu berdinarekin sektore desberdinei zuzendutako kanpainak antolatzen dituzte, azkenekoa, esate baterako, GERO ETA GERTUAGO izenekoa, Eusko Jaurlaritza, aldundi, udaletxe eta beste zenbait erakundeekin batera izan zen antolatua; kanpaina burutzeko herriz-herriz zebilen bulego mugikorra jarri zen martxan aurtengo maiatzetik ekaina arte Euskal Herriko zenbait udaletxetan egon zena. Bertan arratsaldeko 3 t'erdietatik 7 t'erdiak arte informazioa jaso zitekeen: lana, oinarriko eskubide, tratu txarrak, emakumeen elkarteak eta beste

gaiari buruzko txostenak hartzeko aukera ere bazegoen, eta Emakundeko emakumeak sugerentziak edota denuntziak jasotzeko zeuden bertan.

7 t'erdietatik aurrera, Virginia Imazek antzerki emankizun bat eskeintzen zuen: "Modelo klowntzpublicitaria", pentsamendu kritikoa eta umorea tartekatuz. Aldi berean "Shirley Valentine" pelikula ikus zitekeen.

Aktibitate hauetaz gain, "Emakunde" aldizkariaren harpidetza egiten zizuten erabat dohainik.



Jende asko ez zen azken ekintza honetaz garaiz enteratu, agian publizitate ezagatik; dena den, zer edo zer kontsultatzeko honako telefonora dei liteke: 945-132613, edo Erreterian bertan zuzenbide hauetara jo: Asociación para la Promoción de la Mujer "Maialen", Morrungileta 8, 514680-519999 telefonoekin, edo "Andreok Orereta", Urbia Enparantza 1, 2. ez., 527345 telefonoarekin.